

Bherrian azken urte hauetan egindako lanaren eta ikasitakoaren ondorioz, Lankidetz Publiko Sozialaren esperientzien arrakasta-gakoak ulertzeko, alderatzeko eta aztertzeko modua errazten duten 10 ezaugarri sortu ditugu.

Diagrama honetan laburtzen da horietako hirugarrenaren, Ebaluazioa, ikerketa-prozesu espezifiko (10tik 3).

www.bherria.eus/eu/ebaluazioa

Sustatzaileak:



BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA



CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

Dokumentua 2023ko urtarrilean argitaratu da CC-BY-SA 4.0 lizentziarekin —egungo bertsioa eta ondorengoak—, eta horrek aske banatzea ziurtatzeaz gain, aske erabiltzeko eta bertatik eratorritako obrak sortzeko aukera ematen du, betiere iturria aipatuta eta lizentzia berarekin partekatuta.

www.bherria.eus

#Ebaluazioari buruz

Ebaluazioa arlo guztietan gero eta gehiago eskatzen den alderdi bat bezala ezarri da. Abian jartzen ditugun ekintzen eraginkortasuna ebaluatzeak ezarritako helburuak betetzera ekintza horiek zenbateraino hurbiltzen gaituzten ulertzen laguntzen du. Horrek are eta garrantzi handiagoa hartzen du Administrazio Publikoak sustatutako ekintzak direnean, kontuak ematea beharrezkoa ez ezik, saihestezina ere izan behar bailuke.

Hala ere, gaur egun, ebaluazioetan emaitzei begiratzen zaie bereziki; hots, zenbaki absolutuei. Aztertzeke modu bat, proiektu eta produkzio-sektore jakin batzuentzat oso baliagarria izan badaiteke ere, ez da nahikoa erronkak eta kezka sozialak jorratzeko erakundeen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritzen diren helburuak dituzten politika publikoetan.

Ebaluatzea ez da (soilik) neurtzea. Zenbakizko emaitza objektiboei geruza kualitatibo bat eransten zaie. Zenbakiak galderaren, lortu beharreko helburuaren eta/edo ebaluatzeke irizpidearen arabera adierazten dute.

Ebaluazioa hobetzeko prozesua da, ez helburu bera. Ebaluatzea da metodo zorrotz eta ondo dokumentatutako bat sortzea, trazabilitatea errazteko, norbaitek prozesu bera errepikatzen badu, emaitza beretara edo nahiko antzekoetara iritsi ahal izateko. Ebaluazioa prozesu subjektiboa da, eta interpretazioetara irekita dago, baina inoiz ez da arbitrarioa.

Kontzeptualizaziorako ekarpenak

Testu honetan, lankidetzaren publiko-sozialeko proiektuen ebaluazioa ulertzeko eta artatzeko zenbait gako jasoko ditugu:

1. Ebaluazio-irizpideak ezartzea proiektua berriz definitzeko aukera bat da.
2. Ukiezinak zehaztea neurtzeko eta ebaluatzeko.
3. Denbora eta lehentasunak.
4. Lotura pertsonalak eta komunitate-bilbea indartzeko kontzientzia.
5. Erroren konplexutasunaren aurrean, beharrezkoa da galdera naturalago eta errazago batzuk egitea.
6. Ebaluatzea praktikak, jarrerak eta kulturak ikasteko eta aldatzeko.
7. Funtzionatzen ez duena ebaluatzea.

1- Ebaluazio-irizpideak ezartzea proiektua berriz definitzeko aukera bat da

Proiektua garatu aurretik ebaluazio-irizpideak definitzen baditugu, lortu nahi dugunaren eta lortzeko aktibatu behar ditugun ekintzen inguruan kontzientzia handiagoa izango dugu.

Ebaluatu beharreko proiektuak nola funtzionatzen duen ulertzea funtsezkoa da ebaluazioaren inguruan narratiba komuna sortzeko: zein da ebaluatzearen azken helburua? Kontuak ematea, ikastea, biak...?

Ebaluazio-metodoa egituratzean, helburuen pisua eguneratuko dugu. Zein jardura ebaluatuko diren identifikatzean, azter dezakegu helburuak lortzeko behar adina ekintza aktibatuko ditugun. Eta proiektuan zein balio-dimentsio diren garrantzitsuenak zehaztean (ikus 1 tip-a), proiektua berriz definitu ahal izango dugu, haren inpaktua, a priori, lortu nahi dena izan dadin.

Puntu honetan erabaki dezakegu non jarri nahi dugun arreta, onartuaz, oraindik ere garrantzitsuak diren gaiak egonda, ebaluaziotik kanpo geratzen direla. Gainera, horri elementu grafikoak gehitzen badizkiogu, gure narratiba askoz hobeto ulertuko da. Gure proiektua zer den eta zer ez denaren inguruan komunikazio eraginkorra egiteak aukera emango digu espektatibak doitzeko eta askotan emaitza ukiezinak dituzten proiektuekiko mesfidantzarik ez sortzeko.

Zure proiektuan, **nola eta noiz definitzen da ebaluazioa? Ebaluazioak eragina badu proiektuaren definizioan ala borroka galdua da? Proiektuaren helburuak partekatzen al dira proiektuaren parte izango direnekin?**

2- Ukiezinak zehaztea neurtzeko eta ebaluatzeko

Hasierako egoera egindako lanaren emaitzarekin alderatzeko deskribatu ahal ditugun mugarri edo gakoetan bereizi behar dugu gure asmoa. Gure irrika eta premia asko material ukiezinez osatuta daude. Errealitate horren zati bat harrapatu nahi dugu, presenteago izateko.

Inpaktu posible guztiak imajinatzeko, ikusteko, deskribatzeko, partekatzeko... gai izan behar dugu. Emaitzekin eta baita prozesuarekin ere lotutako alderdiak sortzen dira. Gainera, neurtzeko zailak izango diren zenbait gako aurkituko ditugu. Adibidez, geure buruari galdetzen badiogu, zer esan nahi du prozesu bat herritarren ahalduzkoa ekartzen duena izatea? Pertsona autonomoak etor daitezke gure burura, sarea beste erakunde batzuekin elkarrekin duten erakundeak, Udaletxera proposamen gehiago iristea, auzoetan elkarrekin bultzatutako herri-jaiak...

Errealitate hori agerian uzten duen beste adibide bat eta aukera bat izan daitekeena da gure prozesuak kontratazioarekin loturiko prozeduretara eramane beharra. Arrazoi sakonenei buruz hitz egitea eta koadro batean azaltzea, baloratu nahi dugun hura baloratzen lagundu ahal izateko.

Zure proiektuan, zein alderdi dira desberdinak lanaren ondoren? Une bat grabatzen badugu, behin prozesua amaituta, eta bideoa hasierako egoerarekin alderatzen badugu, nola dakigu grabazio bakoitza zein uneri dagokion?

3- Denbora eta lehentasunak

Proiektuaren fase guztietatik eta guztiekin ikasi nahi dugu. Hori dela-eta, ebaluazioa aurretikoan (diseinu-fasea), bitartean (garapen-fasea) eta ondoren (emaitzen fasea) kontuan hartuko dugu. Dena den, zehatz-mehatz ebaluatzeak beti eskura ez ditugun baliabideak izatea eskatzen du (energiak, denborak, pertsonak), eta garrantzitsua da mugak jartzea, gehiegizko analisiak eragindako paralisian ez erortzeko.

Ohikoa da ebaluazioa kanpoko injerentzia gisa sentitzea, kanpotik datorkigun eskakizun baten antzera, eta proiektuarekin zerikusirik ez duen oztopo baten gisa eten egiten du. Ebaluazioari proiektuaren mugetan erreparatzen diogu: denboraren aldetik, amaitu ondoren; prozesuan, soilik azken emaitzaren eraginak neurtzen ditugu; ebaluazioan parte hartzen duen taldean ere, talde teknikoak parte hartzen du inplikaturako alderdien iritzia edo balorazioa kontuan hartu gabe.

Ebaluazio kontziente batek proiektuaren fase guztiei denbora gehiago eskaintzea eskatzen du. Proiektuaren diseinuan hasten da, lortu beharreko helburuez, helburu horiek lortzeko bultzaturako ekintzez eta proiektuaren balio bereizgarriez (dimentsioak) jabetuz. Garapenean jarraitzen du, beharrezkoa izanez gero proiektua aldatzeko aukera eta guzti; eta proiektua bere helburura iristean amaitzen da, ikaskuntzak ateratzeko ikuspegi orokorarekin.

Horrek dena kontrolatu nahi izatera eraman gaitzake: inpaktu guztiak neurtzea, ezer ez uztea kuantifikatu gabe, proiektuaren fase guztietan ekintza guztien emaitzarik txikiena ere jasoko duen datu-basearekin. Baina hori ezin da kudeatu. Veraz, ebaluazioa mugatu behar dugu. Eta, horretarako, zenbait estrategia ditugu:

- **Helburuak lehenestea:** gure proiektuko ekintza edo jarduera guztiak ez ebaluatzea, baina gure proiektuaren helburu guztiak neurtu eta ebaluatuko ditugula ziurtatzea.
- **Jarduerak lehenestea:** arreta berezia eskaintzea gure ekintzen ebaluazioari, horiek guztiak neurtuz eta aztertuz, edo ebaluatzea funtsezkotzat jotzen dugun hautaketa bat egitea, horrekin pisu txikiagoko helbururen bat ebaluaziotik kanpo utzi behar bada ere.
- **Dimentsioak lehenestea:** gure proiekturako 7 ebaluazio-dimentsioaren (ikus 1. tip-a) garrantzia kontuan hartuta, baliabideak lehentasunezko dimentsioak neurtzera bideratzea, nahiz eta horrek gure proiektuaren helburu edo jarduera guztiak ez ebaluatzea ekarri.

Zure proiektuan, **zer baliabide eta denbora eskaintzen zaizkio ebaluazioari? Nola erabakitzen da zer den ebaluatzeko garrantzitsuagoa? Nortzuk, zer eta zein unetan neurtzen dira proiektuak?**

4- Lotura pertsonalak eta komunitate-bilbea indartzeko kontzientzia

Garrantzitsua da gure proiektuak planifikatzeko, ebaluatzeko eta doitzeko gai izatea, pertsonak eta erakundeak elkartzeko leku errepikakor izan daitezen. Jakin nahi dugu prozesu horiek harremanak indartzen eta lankidetzak eta laguntzak ehuntzen laguntzen duten.

"Komunitarioak" deituriko ekintza horietako askoren helburua da harreman errepikariak ezartzen laguntzea. Egiten ditugun ekintza guztiek ez dute helburu hori, baina harreman errepikari horiek errazten dituen guztiak laguntza ematen die gure helburuei eta eragina izaten dute. Eta horrela da bi arrazoi direla-eta:

- Zaila da erronka konplexuei banaka erantzutea. Adimen kolektiboa eta komunitate-bilbearen indarra behar ditugu.
- Gainera, kapital sozialaren ebidentzia dugu, pertsona guztientzako baliabide-iturri gisa eta, beraz, gizarte-kohesiorako aukera moduan.

Gure proiektuak eta prozesuak planifikatu behar ditugu helburu horri erantzuteko. Garrantzitsua da dimentsio hau izatea gure adierazle-matrizean zehazten dugunetako bat eta geure buruari galdetzea gure ekintzek nolako inpaktuak izango dituzte ehunaren harremanei eta indartzeari dagokienez.

Beharrezkoa da adierazle-multzoko gisa ikusitako ebaluazio batetik elkarrizketen inguruan diseinatutako ebaluazioa batera aldatzea. Lanean jarraitu behar dugun komunitateko eragile garrantzitsuekin elkarrizketan hastea ehuntzen jarraitzeko aukera bat da. Gainera, prozesu horietako asko zeharkakoak dira, eta erakundeen barruan arlo ezberdinak inplikitzen dituzte. Eta hori ere aukera moduan hartu behar da.

Zure proiektuan, **nola aprobetxatzen dituzue ebaluazio-espazioak pertsonen eta erakundeen arteko loturak eta prozesuaren helburuarekiko lerrokatzea indartzeko? Nola joaten dira pertsonak topaketa baten ondoren? Gure asebetetze-formularioetan honako hauek bezalako galderak sar ditzakegu: Pertsonak edo erakunde berriak ezagutu dituzu? Norekin geratuko zara lankidetzak handiago bat baloratzen jarraitzeko?**

5- Erronkaren konplexutasunaren aurrean, beharrezkoa da galdera naturalago eta errazago batzuk egitea

Lankidetza-prozesuak konplexuak direla kontuan izanda, zenbait gako naturalizatu eta barneratu behar ditugu, eguneroko iparrorratz bezala balio izateko. Ia bost puntuko definizio baten antzera, gure helburua lortzeko laguntzen ari garen jakiten lagunduko ligukete.

Jakin badakigu lankidetza publiko-sozialeko prozesuak konplexuak direla. Prozesu bat gogobetegarria izatea faktore askoren mende dago; horietako batzuk gure eragin-eremutik kanpo daude eta beste asko harremanen eremukoak dira. Konplexutasun horrek, batzuetan, gainditu egiten gaitu.

Denok badakigu korrika egiten, baina mundu guztiak ez daki ondo korrika egiten. Profesionalek korrika egiteko teknika bat erabiltzen dute, baina ezin duzu bizitza osoan korrika egin ondo egiten duzun ala ez pentsatuz. Lauzpabost gako identifikatu eta modu naturalean integratu behar ditugu.

Ez da batere lagungarria adierazleen zerrenda handi bat ezartzea garatzen dugun ekintza bakoitza prozesuaren helburuaren alde edo kontra doan baloratzeko. Zenbait seinale eta galdera erraz identifikatu behar ditugu, gure proposamenak bideratzen eta zuzentzen lagun diezaguten.

Zure proiektuan, **zer-nolako galderak balio dizuete ebaluazio iraunkorrako bat barneratzeko eta naturalizatzeko? Zein unetan egiten dituzue honako hauek bezalako galderak: Ekintza honek eraiki nahi dugun harreman-estiloa indartzen du? Zenbat aldiz deitu didate proiektuarekin lotura duten pertsonak? Pertsona horien zein alderdi biografikoago ezagutzen ditut?**

6- Ebaluatzea praktikak, jarrerak eta kulturak ikasteko eta aldatzeko

Prozesuen zentzua, erremintak eta ebaluazio-mugarriak berreskuratu behar ditugu. Ekimenak indartzearen, etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren iturria dira. Premiazkoa da hausnarketa egitea praktikatik eta praktikarako.

Askotan inpakturik ez duten txostenak entregatzeko eta egiteko presioa dago. Batzuk ez dira ezta irakurtzen ere. Kontraesana da, eta balioa kentzen dio ebaluazioari. Hortaz, beharrezkoa da ebaluazioaren mugarria ikasteko eta etorkizuneko ekintzak birdoitzeko aukera gisa berreskuratzea.

Azken txostenek ebaluatu baino gehiago deskribatu egin ohi dute, eta hemen aukera bat galtzen da. Helburuak proiektuaren hasieran definitzen ditugu, baina zaila izan ohi da une horretan adierazleak ezartzea. Zailtasun horren aurrean, ikaskuntzekin lotutako hausnarketen ebaluazio kuantitatiboena bereizi ohi dugu.

Ikaskuntza batzuk larruazalean geratzen dira. Rol teknikoagatik gonbidatutako pertsona bat bere iritziak emateko bere roletik aldentzeak, adibidez, espektatiba eta gonbidapenean oso esplizitua izatera eramaten zaitu. Beste gako batzuk konplexuagoak dira, eta garrantzitsua da ebaluazioa eta ikaskuntzak jaso ditugun testua abiapuntutzat hartzea, etorkizuna planifikatzeko.

Halaber, konfiantza-guneak eraiki behar ditugu autokritika-prozesuak eta bilakaera pertsonal/profesional eta kolektibo/instituzionaleko prozesuak errazteko. Badira ikaskuntza instrumentalagoak eta jarrerak eta kulturak aldatzera gonbidatzen gaituzten beste batzuk ere bai.

Horrez gain, funtsezkoa da ebaluazio hori partekatu ahal izatea eta proiektuari era batera edo bestera laguntzen dioten pertsona guztiengana iristea.

Zure proiektuan, **nola ekartzen duzue aurreko zikloetan ikasitakoa plangintza berrira? Zein unetan izan dira baliagarriagoak ikasitakoak? Zer egin zenuten? Nola hausnartzen duzue lanean jarraitzeko behar diren gaitasun pertsonalen inguruan? Nola helarazten diegu gainerako lankideei prozedura berriak eta kulturak kudeatzeko beharra?**

7- Funtzionatzen ez duena ebaluatzea

Arrakasta izan eta asebetetzen duten proiektuak motibatzaileak dira. Modu parte-hartzailean eta publikoan ebaluatzeak harrotasunez betetzen laguntzen digu. Aldiz, proiektu batek arrakasta handiegirik ez duenean, ez dugu zarata gehiegi egin nahi izaten eta, kasurik onenean, norbera bere ondorioak ateratzera mugatzen gara. Ez gara jabetzen zenbat ikas dezakegun gaizki ateratako horretatik.

Era horretako proiektuetan eta parte hartzeko prozesuetan, hasieratik hitzartu behar dugu edozein modutan amaitzen dela ere, horren inguruan hausnartu eta ikasi egingo dugula. Ebaluatzeak irekitzea ere eskatzen digu. Eta horrek zerikusia du gardentasunarekin eta autokritikarekin.

Gardenak izateaz gain, akats horiek jakinarazi behar ditugu. Politikoki ez da onartzen ondo funtzionatu ez zuena. Prozesuek errendimendu politikoa eta komunikatiboa zor dute; eta kudeaketa-erantzukizuna duten pertsonek autokritika egiten badute, oposizioak egoera aprobetxatzen du.

Defentsa- eta eraso-dinamika horren ondorioz, akatsetik ikasteko kultura falta zaigu. Ez dute erantzukizun politikoa duten pertsonek, ez profil teknikoek, ez herritarrek.

Ahultasun moduan hartzen duguna ez erakusteko presioak modu kolektiboan ikastea eta etorkizuneko proiektuetarako oinarri solidoago bat eraikitzea galarazten digu. Gainera, gaizki amaitutako proiektu bat ez ebaluatzeak izan zitzakeen inpaktu positiboak identifikatzea eragozten digu.

Zure proiektuan, **nola jakinarazten dituzue ebaluazioaren emaitzak? Nola dakizue egindakoa zuen helburuak lortzearen aldekoa den ala ez? Nola ikasten duzue akatsetatik? Nola indartzen duzue esperimintatu eta desberdin egin ahal izateko kultura? Nola laguntzen diozue inplikaturako aldeei zailtasunak onartzen eta lanean jarraitzen?**

Ebaluazioari buruzko tip-ak

Partekaturiko helburu bat ulertzeko, integrazteko eta garatzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait ideiak eta erreminta jaso ditugu.

Herritarren berrikuntza-prozesuetan Civimetrok proposaturiko 7 dimentsioak

Civimetro proiektuaren barruko dimentsioak herritarren berrikuntza-prozesuen ezaugarriak bistaratzeko eta horiei balioa emateko beharretik sortzen dira.

Ekimen bat proposamen honekin bat datorrela uste da, baldin eta, gutxienez, 4 dimentsio garrantzitsuak badira haren helburuetarako eta egiteko moduetarako. Dimentsio bakoitzak hainbat alderdi ditu, eta horiek ekintza zehatzak, kontuan hartzeko modukoak eta neurgarriak deskribatzen dituzte.

Hona hemen 7 dimentsioak: Kudeaketa banatua, Antolaketa adhokratikoa, Dinamika esperimentalak, Komunitate inklusiboa, Kontuak ematea, Tokiko irismena eta Diseinu irekia.

Esteka honetan sakontzeko informazio gehiago aurkituko duzue:
<https://civimetro.org/marco-metodologico/dimensiones>.

Ebaluatzeko moduko helburuak

Guk ere uste dugu ebaluazio-planetan helburuak definitzea lehen urrats komuna dela. Era berean, proiektuaz arduratzen diren pertsonen eta kanpoko ebaluatzaileen artean modu kolektiboan egin beharreko ariketa bat da, horren planteamenduari eta etorkizuneko garapenari buruzko ikuspuntuak bateratzearen.

Hala ere, ez da erraza helburu horiek zehaztea eta modu argi eta unibokoan adieraztea. Civimetrotik egitura bat jarraitzera gonbidatzen gaituzte, etorkizunean adierazle neurgarri eta ebaluagarrietan korrelazioa ziurtatzen duten helburu horiek sortzeko. Helburu bakoitzak idazteko elementu berberak izan beharko ditu:

1. Aditza.
Helburuaren ekintza nagusia infinitiboan.
2. Biztanleria.
Zein taldetan eragin nahi den (adib., ez 'herritarrak' oro har, baizik eta 'auzoko bizilagunak').
3. Alderdia.
Biztanleria-taldean kontuan izan beharreko hobekuntza edo baldintza.




Datuak bistaratzeari ebaluazio-prozesuetan

Datuak bistaratzeko, datuak bilatu edo sortzeko, interpretatzeko eta alderatzeko prozesua garatu behar da, eta datu horiek grafiko bidez irudikatuta, pertsonak informazioa eskuratzeko aukera izango dute, ezagutza errazago sortuz.

Gure ustez, datuen bistaratzeari proiektuen inpaktuez jabetzen laguntzen digute.

Halaber, egokia da datu horiek aurkezteko egindako bistaratzeari, zer kolektibori lagundu diogun eta, nolabait, ekarpen indibidualenak zeintzuk izan diren erakustea datu horiek. Modu horretan, elkarreragiketen eta emaitza globalen konplexutasuna ikus ahal izango dugu, modu indibidualagoan uzten dugun arrastoarekin batera.

Web orrialde honetan, zuen datuak bistaratzeari ezberdinetan itzultzen esperimentatu dezakezue: <https://www.rawgraphs.io>. Civimetrok baliabide hori erabiltzen du.



Bherria Prestakuntza - 27/10/2020
¿Cómo medir lo invisible? Evaluación de procesos de innovación ciudadana

hola@civimetro.org
Pascual Pérez + Maje Reig

Beste adibide batzuk jardunbide egoki gisa: REASen klausula sozialak eta Iruñeko Udalaren ebaluazio-gida

Klausula sozialak, erosketa publiko arduratsua eta balantze soziala

Hainbat erakundek klausula sozialen eta erosketa publiko arduratsuen inguruan egindako lanak, kontratu publikoak esleitu eta gauzatzekoan, irizpide etikoak, ingurumen-arlokoak eta sozialak zeharka sartzea planteatzen du. Gune honetan berreskuratu dugu, ariketa garrantzitsua baita inpaktu sozialarekin loturiko alderdiak irizpide objektiboetara eramatea, objektibotasunagatik eta zorrozetasunagatik nabarmentzen diren eremuetara. REASen argitalpen hauek berreskuratu ditugu.

Begiratu beharreko beste ispilua balantze sozialarena izan daiteke:

<https://reas.red/auditoria-balance-social>

<https://reaseuskadi.eus/hacemos/auditoria-social>

Iruñeko udalaren ebaluazio-gida: parte hartzeko politikak ebaluatzeko tresna praktikoak

Testu honetara ekarri dugu, baita ere, Aradia kooperatibak Iruñeko Udalarentzat egindako lana. Mapaketa hori egiteko, parte-hartzearen izaerarekin oso lotuta dagoen metafora bat erabiltzea baliagarria izan daitekeela pentsatu zuten: TRESNEN ZUHAITZA. Modu horretan, honako tresna hauek bereizten dituzte: lurra (irisgarritasuna, gaikuntza, sormena, inklusioa, gardentasuna eta zeharkakotasuna), sustraia (proposatzeko gaitasuna, abiapuntuko agertokia, baliabideen eta helburuen plangintza), enborrak (itzultzea, dinamizazioa, informazioa eta (ber)ezagutza), adarrak (parte-hartzearen irismena, lidergoak eta sareak) eta fruitua (herriarren autonomia, kogestio instituzionalizatua, konpromiso loteslea, kultura politikoa eta ahalduntzea).

Lana oso baliagarria da, eta esteka honetan argitaratuta eta partekatuta dago.

www.oidp.net/docs/repo/doc574.pdf





Urtarrilak 2023 enero
www.bherria.eus